

BALAIKE

100 pta.

50. zenb.



● 2 milioi Zumaiatik Sudanera

● Ikasturte berria, ikastetxe berrian

● Pablo Gomez nagusi Zakila biran

● Herriko EGIN-eko bi langilerekin elkarrizketa

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atek eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAIA

Zumaiako herri aldizkaria
BALEIKE

700
aldizkari salgai,
zuk erosteko zai

honako puntu hauetan:

OKINDEGIAK:

ERROTA:

Basadi
Erribera
Juan Belmonte

OGI BERRI:

Amaiako plaza
Basadi
Erribera

ARKUPE

LIBURUDENDAK:

AIZPURUA
LOITZ
OLANO

JANARIDENDAK:

ALAI
ZUBIMENDI

TABERNA - JATETXEAK

INPERNUPE
JESUSKOA
NARRONDO
NIKOL

BESTELAKOAK:

ARROA BEHEKO ESTANKOIA
FOTO GAR

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 10 56
faxa: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIAKO GAZTE
BATZORDEA

Administrazio batzordea

Xabier Azkue
Eneko Dorronsoro
Josu Waliño
Iñaki Zubimendi

Erredakzio batzordea

Antxoka Agirre
Esti Esteibar
Ane Osa
Esther Aizpurua
Iratxe Aizpurua
Esther Martinez

Joseba Ossa

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre

Igor Uranga

Ane Osa

Gorka Zabaleta

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Juan Luis
Romatet, Miriam
Romatet, Jon Manzi-
sidor, Josu eta Arantxa,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Dani Carballo

Argazkiak

Jonathan Bernal

Baleike

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Itziar Uranga,

Xabier Azkue

Banaketa

Eneko Dorronsoro

Ainara eta konpainia

Publizitatea

Iñaki Zubimendi

(943 143226)

Inprimategia

Gertu Inprimategia

(Zubillaga - Oñati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Frontoiaren erabileraz



Igor Uranga

Azken urteetan Odieta pilotalekuaren erabileraren inguruan gora-behera eta kexa bat baino gehiago izan da. Ni neu, oraingoz behintzat, kexa horietako bati bakarrik heldu nahiko nioke.

Zumaiako Zesta Punta Eskolak arratsaldero entrenamendu saioak egiten ditu frontoi honetan. Gaztetxo asko izaten da bertan eta azken urteetako emaitzak ikusirik, fruitu oso onak ematen ari da; eskola honetan egiten ari diren lana goraiatu beharra dago inolako zalantzarik gabe. Arazoa da frontoi hau, bere ezaugarriengatik ez dela zesta puntan jokatzeko aproposa eta pilota modalitate honetan erabiltzen den materialarengatik eta ematen zaion abiadurarengatik hondatu egiten duela. Egindako kaltea gainera agerian geratzen da eskuz edo palaz jokatzera norbait frontoi horretara doanean. Honi konponbidea emateko zer egin? Bi irtenbide bururatzen zaizkit: lehena, eta beharbada orain praktikoena dena, Udalak dirulaguntza bat ematea zesta punta eskolari frontoi aproposago batera joan daitezen. Bigarren irtenbidea, frontoi berri bat egitea litzateke, baina momentuan behintzat hau gauzatzea zailagoa ikusten da.

Soluzioa aurkitu beharra dago eta bizkor gainera, frontoiaren eta honen erabil-
tzaile guztion mesedetan.

Premiazko telefonoak

| | | | |
|-----------------------|--------------|---------------------------|--------------|
| Kultur Etxea | 943 86 10 56 | Ludoteka | 943 14 32 64 |
| Polikiroldegia | 943 86 20 21 | Tren geltokia | 943 86 11 27 |
| Gurutze gorria | 943 86 10 93 | Taxi geltokia | 943 86 13 60 |
| Udaletxea | 943 86 02 50 | Bake epaitegia | 943 86 00 67 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 86 22 00 | Posta | 943 86 15 00 |
| Osasun zentrua | 943 86 08 62 | Udaltzaingoa | 943 86 18 70 |
| San Juan Egoitza | 943 86 12 73 | Pilotalekua | 943 86 21 72 |
| Pentsiodunen Egoitza | 943 86 17 00 | Larrialdi zerbitzua | 943 46 11 11 |
| Musika eskola | 943 86 11 83 | Txomin Agirre euskaltegia | 943 86 02 48 |
| Alkoholikoen senideak | 943 47 54 03 | Sexu-informazioa | 943 32 04 44 |

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Arrangoleta eta Oxford ez pribatizatu!

Arrangoleta eta Alondegi Zaharra edo Oxford eraikuntza publikoentzako Udalak duen pribatizazio asmoa ikusita, gure kezka adierazi nahi dugu.

Herri guztietan zerbitzu publikoen eskaintzak gero eta ugariagoak diren momentuan, ez zaigu egokia iruditzen Udalaren esku dauden bi eraikuntza saltzea, batez ere lokal publikoen premia egonda eta hurrengo urteetan egongo direnak aurreikusi gabe.

Gure ustez, eraikuntza horiek kultura, ongizate, aisia edo osasun erabilpenetarako egokiak izan daitezke, kontuan hartzen badugu kokapena eta Zumaian zeregin horiek betetzeko dauden eraikuntzak ez direla egokienak (adibidez Foronda eta Osasun Zentrua).

Horregatik eskatzen dugu Udalak hartutako erabakia berraztertzea, gaur egun dauden toki beharrei erantzutea eta aurreikustea hurrengo urtetan sortuko direnak.

Laburtzeko: Arrangoleta eta Oxford Udalaren jabegoa izan behar dutela iruditzen zaigu erabilpen publikoa eman ahal izateko.

Hemendik pixkatera sinadura bilketa egingo dugu nahi duenak atxekimendua adieraz dezan.



KEZKATUTAKO ZUMAIAR BATZUK

Aizu!

Abestea gustatzen bazaizu, (nahiz eta Ainhoa Arteta ez izan), gitarra edo beste musika tresnaren bat jotzen baduzu (nahiz eta Paco de Lucia bezain ederki ez jo), baina batez ere haur eta gazteen ospakizunak animatzea gustatuko balitzaizu, azaldu zaitez irailaren 29tik aurrera LARUNBATERO goizeko 11etan, parrokiako lokaletara.

Zure zain gaude! Animo!

PARROKIKO GAZTE BATZORDEA

7
MARES
7 MARES EGOKIAK

Arrain eta mariskoak
Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 862309

HARATEGIA
URDAITEGIA

agustin
HARAKINA

Itzurun zuhaitzbidea, 1
Tel. 862430

BASADI
ALBAITARITZA
KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
Tel. 143310
Tel. mugikorra: 908- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Alberdi
Gizonezkoen moda

Erribera kalea, 6
Tel. 861155

ANA
ETXEROKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 861156

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak

Zumbillo, 4 Tel. 861407



Felix Aizpurua

Udazkena

Doinua: Neska zahar bat...

*Hostroak erorita
eguna laburtu.
Euritako erropak
armaiotik hartu.
Kopeta ximurtu ta
muturra okertu
udazkena dugula
zein ez da ohartu?*

*Hondartzak hustu dira
ta eskolak bete
kale ta lantokiak
beste horrenbeste
Errealia, Athletic
Alaves fuerte
Futbola hasi da ta
prepara zaitezte.*



Jose Antonio Galdona

Itxaropena, zergatik ez?

Euskal Herriko bazter guztietan ilusioa zabaldu dela gutxi ukatu dezaketen errealitatea dugu gaur egun. Lizarrako akordioak eta ETaren su-etenak are gehiago, uholde bat bezala eta gutxi espero zuten moduan, euskal herritarren barne-barneko nahia, hau da, bake prozesu justu bat, ipini du gure eskuetan.

Historian zehar –eta oso historia zaharretik hasita– Euskal Herria ez da inoiz egon hain abiapuntu garrantzitsu eta eraikitzailean.

Antza denez, behingoz euskal herritarren borondatean jartzen da gure herriaren etorkizuna (oraingoz teoria mailan), Lizarrako akordioak esaten duen bezala. Dударik gabe zailtasunak ikaragarriak dira. Ez alferrik, hor gaude kokatuta, bi estatu boteretsuren artean, eta beti bezala, gure eta beraien nahiak lehian arituko dira. Espero dezagun lehia behingoz zibilizatua izatea.

Une latzak eta atzerakadak ere hortxe egongo dira egunero, indartsu, herri honen etorkizunari oztopoak ipintzen.

Azken urteotan irakaspen ugari izan ditugu munduan zehar: Irlanda, Salvador, Guatemala eta abar. Horietan garbi ikusi da Bake Prozesu baten alde egiteko gizarte osoaren indarrak behar direla.

Horrexegatik uste dut gizarte zibilaren unea iritsi dela; alderdi, sindikatu, gizarte mugimenduak eta hiritar ororen iritzia kontuan hartzeko une aproposa dela.

Hau dena bideratzeko ilusioa ere izan daiteke tresna baliagarria. Zergatik ez?



ARGIA
ARROPADENDA

Itzurun, 1 Tel. 143224

Arkupe
Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2 Tel. 861521

AUTOS ZUMAIA
Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45 Tel. 861485

Sudan,
Afrikako
herrialdea.

Sudani laguntzeko bi milioi bildu dira Zumaian

Caritasen tonbolak arrakasta itzela izan du

Gerra amaitezin batek harrapatuak dauzka Sudango 3 milioi t'erdi errefuxiatu Kenia, Uganda eta Etiopiako mugetan. Joan den urtean lehorrea izan zuten lehenengo eta uholdeak ondoren. Hildakoak, gosetea, hildako gehiago... desastre haundi bat. Elizak laguntza kanpaina batzuei ekin die, eta Zumaian ere Caritasen bidez tonbola bat antolatu da. Oso gustora daude herritarrek emandako erantzunarekin, hamabost egunetan boletu guztiak saldu eta bi milioi pta bildu baitira. Ba omen daude diktadoreak kontrolatzen ez dituen bideak, eta hauetatik iritsiko da apaiz zarauztar bat Euskal Herrian jasotako laguntzarekin.

Afrika ekialdean dago Sudan, 20'5 milioi biztanle ditu eta Jartum da hiriburua. 89an kolpe militar baten bidez integrista islamiarren diktadura bat ezarri zen boterean, eta gutxira hegoaldeko probintzia (Ekuatoria, Bahar el Ghazal eta Upper Nile) kristauak, armatan altxa ziren, eta egundaino dirauen gerla zibila piztu zen. Duela bi urtetik hona egoerak okerrera egin du, indar paramilitarrek

sekulako triskantzak egin dituzte, lehorrea izan da 97 eta uholdeak 98an, eta 3 milioi t'erdi errefuxiatu erabateko miserian gelditu dira.


UNICEFen azterketaren arabera 38.000 Tona janari berehala behar dituzte goseteari erantzuteko, eta 2'5 milioi dolar biltzeko kanpainari ekin dio Caritasck.

Zumaian Asentxiok eman zien Sudanen egoeraren berri. "Normalean herriko edo bailarako familia behar-tsuei laguntzea izaten da gure egitekoa, eta horretarako dirua parrokiak kolektak eginaz bildu ohi dugu, baina kasu hau berezia zen, diru asko behar zen (Asentxiok miloi bat bildu behar zela esan zigun), eta deialdi zabalago bat egitea erabaki genuen, tonbola bat montatzea" kontatzen digute.

Jendearen erantzunarekin oso gustora daude. "Monja batek landare bat eman zigun, andre batek berak eskuz egindako figura batzuk, denda batetik

argazkientzako marko mordoia erregalatu ziguten, beste batetik saldu ezinda zuten labadora bat..." eta honela zozketarako jarri dituzten erregalo asko eta asko herritarrek dohainik emandakoak izan omen dira, baita lokala bera ere. "Edade eta alde guztietako jendea etorri zaigu boletuak erostera, eta zenbait diru kantitate bat ematera ere animatu da. Ikusgarria izan da jendearen erantzuna" diote behin eta berriro.

Abuztuan zehar egin dute tonbola, zortzi-hamar lagun aritu dira lanean, eta milioi t'erdi pta garbi bildu dituzte. Beren altxorretik jarri duten beste milioi erdiarekin bi milioi osatu dituzte, apaiz zarauztar baten bidez Euskal Herrian bildu diren beste diru guztiekin batera Sudanera bidaltzeko. ◀ **ANTXOKA AGIRRE**



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2

Tel. 862206



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azepeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAIÀ

Basadi, 12 behea Tel. 861018

“Gizartekintza” Gizarte Zentruaren Zilarrezko Ezteiak



Diputazioaren ‘Gizartekintza’ Gizarte Zentruak, lehen Jubilatuen Etxea izandakoak 25 urte bete ditu bere ateak ireki zituenetik, eta zilarrezko eztei hauek ospatzeko ‘Beheko Plaza’ Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartek hainbat ekitaldi antolatu ditu urriaren Stik 11ra bitartean. Hemen duzue egitaraua:

- Osteguna 8, arratsaldeko 7etan
Gizarte Zentruko abesbatzaren

kontzertua eskainiko da Aita Mari aretoan.

- Ostirala 9, gaueko 10etan ‘Beheko Plaza’ Jubilatuta elkarteko taldeak ‘Beti geratzen zaigu Paris’ antzezlanaren taula-ratuko du Aita Mari aretoan.

- Larunbata 10, goizeko 12:30etan lunch-a, eta arratsaldeko 6:30etan ‘Donostia-S.S. (1920-1930)’ izenburua duen bideo emanaldia Gizarte Zentruan.

- Igandea 11, Jubilatuta eguna. Goizeko 9etan kalejira txistulariekin, 12tan Meza parrokiaren, Gizarte Zentruko abesbatzak kantatua, eguerdiko 1ean dantzaldia Eusebio Gurrutxaga plazan, eta ordu bietan ‘Etxe Ona’ jatetxean bazkaria eta bazkalondoan dantzaldia. ◀

Hil honen amaieran hasiko dituzte berriz erria dragatzeko lanak

Uda denboraldian geldirik izan ondoren, iritsi da berriz urria, kurto berria eta utzitako lanei ekiteko garaia.

“Ingurugiro Eraginaren Aitorpena”ren arabera, dragatzeko lanak urria eta maiatzaren 1a bitartean egin behar dira. Urriaren gaudenez, lanen ardura duen enpresak Santixo bidean duen

“bungalow”era jo dugu informazioa bila. Beraiek azaldu digutenez, joan den apirilaren 30ean utzi zieten ibai dragatzeko lanei eta hil honen bukaeran edo hurrengoaren hasieran ekingo diete berriz.

Bi hilabete edo bi hilabete eta erdiko lana izango dela esan digute eta ez dela orain artekoa bezain ikusgarria

IZANGO, untxi gutxiago erabiliko direlako.

Horrela izanik, 97ko abenduan hasi ziren kirol portua eraikitze lanen lehen fasea, aurreikusitako epean bukatuko dela azaldu dute, hau da, hamalau hilabeteren buruan. ◀



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19

Tel. 861433
Faxa: 861067

AZKUE

Taberna - jatetxea

KARTA . MENUA . OHEAK

Basadi, 9

Tel. 862441

balezulo

importaturiko eropa eta artisautza



Basadi, 3



Erribera kalea, 2
Tel. 861125



ZURICH
ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1 Tel./Faxa: 860169



- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

Irailaren 22an ireki zen Eroski berria

Ohikoez gain badira
zerbitzu erabat
berriak

732 m² ditu lokalak, 5 kaja
eta 25 langile. Emakumearen-

tzako edergaiak, edari
freskagarriak, maneagailuak,

lekariak... era guztietako
produktuak aurki daitezke

bertan. Supermerkatu
handietan ohi denez musika

dago jarrita erosketak
girotzeko, langileek

uniformea daramate, eta
herrikoak eta ezagunak izan

arren baita identifikazio
txartela ere: Rebeca, Arantxa,

Josefina, Urrategi, Mertxe...

ohi denez baita, denak
neskak dira, harakina eta

enkargatua izan ezik.

Enkargatuak, Aitor izeneko elgoi-
bartar gaztea, azaldu digunez lau
mailakoak izan daitezke Eroski kateak



ezartzen dituen dendak: "charter"-ak
edo autozerbitzuko supermerkatuak,
"consum" edo freskoak izaten dituzten
supermerkatuak, "Maxi" hipermer-
katuak, eta 'Eroski', handienak.
Poligonoan ezarri dutena "consum"
bat omen da.

Goizeko bederatzietatik gaueko
bederatziak arte etenik gabe dago
irekita, baita larunbatetan ere, eta
mota guztietako produktuez gain
harategi, arrandegi, fruitategi eta
okindegi postu bana ditu.

Zerbitzu berritzaileena erosketak
etxeraino eramatearena litzateke.
"Pisuarekin ezinean ibili ohi den
jendeari begira jarri dugu zerbitzu
hau" azaltzen du Aitorrek. Erosketak
norberak egin behar ditu, kajakoari
helbidea utzi eta azken orduan
furgoneta batean eramaten dituzte
etxeetara. 300 pta kostatzen da.
Aipagarria izan daiteke baita ere
ezarri duten kontsumitzailearentzako
dohainezko telefonoaren zerbitzua.

Horrelako supermerkatu puska ireki
ondoren goikoa itxi egingo ote zuten
ere entzun izan diogu bati baina
gehiagori. Ezetz dio Aitorrek, "izate-
kotan litekeena da berrikuntzaren bat
ere egitea" gaineratzen du. "Charter"
bat omen da goikoa.

Euskerak dendetan izan behar duen
presentziaz aritu gara ondoren.
Azaldu digunez informazio guztia bi
hizkuntzetan ematea litzateke beren
asmoa, baina zailtasun batzuk ere
badituzte euskerarekin. "Eroskik sortu
zuen hiztegi batekin ibili ohi gara"
esplikatzen digu Aitorrek, "baina
badaude produktu batzuk euskeraz
inoiz eskatu ez direnak, eta hauen
itzulpenak xeblebre xamar gelditzen
dira, eta egunero ateratzen diren
produktu berriekin ere arazoak izaten
ditugu".

Kartel haundi eta ertainak bi hizkun-
tzetan daude jarrita, baina kanpo-
aldean azaltzen diren eskaintza
bereziak eta apaletako txarteltxoak
erdera hutsean. Ea laster euskeraz ere
jartzen dituzten. ◀

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25 Tel. 862073

CARLIN
OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK, HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale nagusia, 3 Tel/Faxa: 143453

Botua hogarrearan eman behar da.

Gehienok jakingo duzueenez Urriaren 25ean, igandea, hauteskundeak ditugu EAEn. Asko ordea ez da enteratuta egongo botua emateko tokia aldatu egin dutela oraingoan. Arrangoletan izan beharrean Gizartekintza Gizarte Zentruan eman behar da botua. Badakizue.

**Salsa ikastaroak Etxe-Onan**

Urriaren 20an salsa ikastaroak hasiko dira Etxe-Onan. Ekaina bitartean asteartero izango dira klaseak, zortzirak eta laurdenetik hamarrak eta laurdenetara, eta gabonak eta aste santuan oporrak hartuz. Joan den urtean bezala Victor Jesus kubatarra arituko da irakasten eta joan den urtean bezala jende asko eta adin guztietakoak azaltzea espero dute antolatzaileek.

Musika eskolako klaseak

Irailaren erdialdera ikasturte berria hasi zuten Musika Eskolan. Solfeo, pandero, piano, eskusoinu, kitarra klasiko, kitarra elektriko, txistu, trikitixa, biolin, klarinete, tronpeta, saxo, tronboi, xirula eta kantu ikastaroak eskaintzen dituzte. 288 pertsonak eman dute izena aurten, iaz baino kopuru bajuagoa. Solfeo, pandero, piano eta kitarra elektriko ikastaroetan badago oraindik lekurik, anima zaitetz!



**CORO
PRIETO**
Eslelicista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g

Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

S
DORNUTEGI

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

EGOKI



Erloju
eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

Ikasturte berria zubiaren bestaldean

Zumaiako Herri Eskola berriari bixita

Galanta egin dute Herri Eskola. Pasillo berri-berriak, gelak sobran, ordenagailu mordoa, musika aretoa, kirol instalazioak... gustoa ematen du San Pedro kalean apaizek utzitako gela batean hasi ginela gogoratu eta ikastola zenbateraino hazi eta indartu den ikusteak. Bastante kostatokia izan da proiektu berria, saltsa eta gora-behera batzuk ere izan dira tartean, baina azkenean behintzat hutsik gelditu dira Arrangoleta zaharra eta Oxford, erori aurretik gainera, eta zubiaren bestaldean ekin zaio ikasturte berriari.



Bi aldetan banatzen da eraikin berria, bakoitzak bere sarrera duelarik. Ezkerreko sarreratik DBHkoak sartzen dira, eta eskubikotik Lehen Hezkuntzakoak.

Gu eskubikotik sartu gara, eta Samuelek lagundu gaitu batera eta bestera. Oraindik ere azkenengo ikutuak ematea falta baldin bada ere martxan dago dena.

Sartu bezain pronto, eskubitara, ekitaldi aretoa eta irrati-gela daude. Azken hau osatzen ari dira oraindik, baina dagoeneko albisteak, kirola edota eguraldiaren berri ematen dute egunero gela guztietatik entzuteko moduan. Ekitaldi aretoa, berriz, antzerki emanaldiak, hitzaldiak edota musika klaseak emateko erabiltzen da. Sarreratik sartu eta parean: handia egin dute, eta biltegia, dutxa eta aldagelak ere baditu. Sarreratik ezkerretara, berriz, jangela eta sukaldea daude, ederrak hauek ere, baina aurrean behintzat ez dituzte irekiko eskari gutxi egon denez

Juleneko jangelarekin moldatzeko asmoa baitute.

Igogailuan igo gara lehen solairura. Gela arruntez gain, tailerrak (teknologia, eskulanak e.a.) eta irakasleen gelak topatu ditugu bertan.

Igogailua hartu eta bigarren solairura. Gela gehiago, liburutegia, laborategia eta informatika gela. Pasada bat.

Eraikin berria da nobedade handiena, baina honekin batera Julene eta Zumaiako institutuaren bidez osatzen da Zumaiako Herri Eskolaren eskaintza: hiruen artean urtebetekotatik hasi eta goi zikloak bitarteko ikasketa guztiak Zumaian egiteko bidea dago.

Lehen Hezkuntzako lehen zikloa, zortzi urte bitarteko ikasleei dagokiena, Julenen ematen da. Lehen ziklo honi dagokionean urtebeteko haurrentzat eskaintzen den zerbitzua genuke ikasturte honetako berrikuntza nagusiena. Eraikin berrian, berriz, lehen genien lez, bigarren zikloa, zortzi urtetik hamabira eta

EGUZKI
PUB
Koktel bereziak
Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ekin
elektrizitatea, s.l.
instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía

Televés
Instalador
Oficial

MoviStar

MoviLine

CANAL+

CANAL DIGITAL

Erribera, 18
20750 Zumaiá (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777

DBHa, hamabi urtetik hamaseira. Eta institutuan DBH ondorengoak, zehazki unibertsitatera joateko edo goi mailako zikloetarako (administrarritza edota finantzak esaterako) zubi lana egiten duen batxilergoa (teknologiko-zientifikoa nahiz gizarte zientzia), eta erdi mailako zikloak (esaterako aurtan jarri berri duten eta EAEn beste inon ematen ez den barazki, okela eta arrain kontserbagintzarako teknikari titulua).

Aipatu halaber, oikiarren autobusa herritik pasatzen dela zubiaren bestaldekoentzat. Autobus bat propio jarri nahi izan zen, batez ere txikiei begira arranplatik eskolarako bidea egiteko, baina ez zuten onartu legeak ezartzen zuen gutxieneko distantzia ez zegoelako. Oikiarren autobusak 3 urtetik gorako haurrak bakarrik jasotzen ditu (txikiak sartu eta atera egiten denbora asko galduko bailitzateke) eta txikiagoen gurasoak egonuro joan etorria birritan egin beharra izaten dute.

Samuelen azalpen hauek guztiak entzunez eskola osoa korritu ondoren, kanpora atera gara berriro.

Ikasleen eritziak ere jaso nahi izan ditugu, eta hauek atera zain egon gara ondoren.

Mutikoskor kuadrila handi bat inguratu zaigu lehoiak bezala galderak erantzutera. "Earra!, polita!, ona!, guapua!", denei gustatu zaie Herri Eskola berria, "Maria eta Jose baina hobia" esan du batek, "Maria ta Josei paliza emango dieu fubolian" beste batek. Akatsik aipatzekotan gelak txikiak direla diote. "Pasilluak haundikiak dira eta gelak txikiak" dio Ander Amas 6. mailakoak. Iosu Osa 4. mailakoarentzat urrutiegi dago, "onena bizikletan etortzia da!" erantzun dio 5. mailako Ioritz Sasianek. Maixuak zer moduz portatzen diren galdetu diegunean 4. mailako Ibon Vicentek Liberekin gustora dagoela esan digu, gainerakoek ez dute komentario haundie-

girik egin nahi izan. Eskola gustatzen zaie, baina ikastea ez hainbeste. Hala ere dena aprobaturako omen dute, "txupaua da!". Konfiatuta badaude behintzat.

Goiz guztia eskolan pasa ondoren gosea ere dezentekoa izaten da, eta jendea motxila bizkarrean hartu eta ziztu batean doa etxera, bazkaltzera. Baita gu ere.

◀ **ANTXOKA AGIRRE, ANE OSA**

Oso animoso hasi dute ikasturtea



ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

ENTER
INFORMATIKA

Ordenagailu sailmenta
zerbitzu teknikoak
hardware eta software
informatikako kurtsoak

Baltasar Etxabe z/g
Tel. 861175
Faxa: 860550

expert



ELEKTROGAILUAK

MERTXE AIZPURUA

Etkezaretza, 6
Tel. 861078



Amertxe
Foto

Erribera kalea, 6
Tel./Faxa: 861707

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

Hiru hilabete EGINik gabe

Nekez ahaztuko dugu 1998. urteko uztailaren 15a. EGIN itxita eta 8 pertsona espetxeratuta, horixe izan da "Pobre de mi"aren gauean hasitako operazio erraldoiaren ondorioa. Ordutik hona aipagarriena jendearen erantzuna izan da. Horren adierazle dira "Euskadi información" egunkaria eta "Egingo dugu" proiektu berria. Eginoko langileak egin duten moduan guk ere ia ia liburu bat beharko genuke ditugun guztiak esateko, baina proiektu berria eta EGINeko bi langilek bizitakoak jasotzera mugatuko gara.

Lehenik, "BALEIKE" aldizkariak, "Egin egunkaria" eta "Egin irratia", beste hogeit hamar herri-aldizkari eta euskara elkarterekin batera, kaleratutako elkartasun adierazpenaren berri emango dizuegu.

Honako agiri hau sinatzen dugun aldizkarietako lan-taldeok, ondorengo arrazoiengatik "Egin egunkaria" eta "Egin irratia" gure elkartasuna adierazi nahi diegu:

1. Administrazio kontseilu bateko kide batzuei leporatutako balizko delituengatik hedabide bat ixtea ez dela bidezkoa irizten dugu, pertsona fisiko batzuen ustezko jardunak eta hedabidearen funtzionamendua bereiztu behar baitira.
2. Adierazpen askatasuna giza eskubide bat izanik, hedabide hau ixteak giza eskubide hori ez errespetatzea dakar, hainbat eta hainbat pertsonari informazioa jasotzeko bide bat itxi zaiolako.
3. Horrelako neurri larriek gatazka eta tentsio giroa areagotu besterik ez dute egiten.

Baleikerekin batera agiri hau sinatu duten herri aldizkariak

| | |
|-------------|-----------------------|
| BALEIKE | (Zumaia) |
| GEU GASTEIZ | (Gasteiz) |
| GALTZAUNDI | (Tolosaldea) |
| GOIBEKOKALE | (Elgeta) |
| TXINTXARRI | (Lesarte) |
| TTIPI-TTAPA | (Bortzirietza-Baztan) |
| DEIADAR | (Gernika) |

| | |
|---------------|------------|
| IRUTXULO | (Donostia) |
| MAXIXATZEN | (Azkoitia) |
| ERAZ | (Durango) |
| GOIERRITARRA | (Goierri) |
| BERTON | |
| BIZARRA LEOAN | (Getxo) |
| BERRIGARA | (Bergara) |

| | |
|-----------------|------------------|
| DROGETENITTURRI | (Ermua) |
| ETA KITTO! | (Eibar) |
| BARREN | (Elgoibar) |
| NOAUA | (Usurbil) |
| AIURRI | (Beterrri) |
| GUAIXE | (Altsasu-Sakana) |

EGINeko langileak aipatu ditugu eta itxi zutenean lanean ziren berrehun eta gehiago. Horien artean Eguzki Agirrezabalaga zumaiarra eta Koldo Landaluze, egun Zumaian bizi den santutxuarra. Urte askotan Eginen aritutakoak dira biak.

EGIN itxi zenean Eguzkik egunkariko gehigarrietan egiten zuen lan eta atal honetako erredaktore burua zen. Koldok, berriz, irratian egiten zuen lan eta teknikari lanak egiteaz gain "La linterna magica" eta zineari buruzko irratsaioen egilea zen.

■ Nola gogoratzen duzue uztailaren 15a?

EGUZKI- Gau hura klabea izan zen. Bi lankide ezkontzen ziren handik hiru egunera eta "despedida" afaria genuen. Mertxe eta Andoni ezkontzen ziren eta afaria oso berezia zen. Andoni Murga Fernando Alonsorekin batera atxilotu zuten 96ko abuztuan

eta Soto del Realeko espetxean dago. Uztailaren 17an ezkontzen ziren eta afaria 14an zen. Jai giroa eta parranda gogo nabaria zen mobilak joka hasi zirenean: "Hernani inguratuta dagoela, ez dakit zein atxilotu dutela, ez dakit zeinen etxea inguratuta dagoela".... eta guztiak EGINekin zerikusia zutenak edo administrazio kontseiluekin harreman izandakoak. Horien artean zeuden senargaiaren aita eta osaba, eta berehala, Mertxe urduri jartzen hasi zen ezkontuko ez zirela eta esanez. Guztiok geunden oso urduri eta gehienok etxeko bidea hartu genuen, hiruk ezik. Horiek 5.30ak edo 6ak inguruan jakin zuten polizia EGINera sartu zela eta bertaratu egin ziren. Horiek izan ziren gertatzen zenaren berri izan zuten lehenengoak, beste guztiok zeribait gertatzen zelako susmoaz lotaratu ginen, baina zehazki zer gertatzen zen jakin gabe. Goizean irratia piztu eta

orduan jakin genuen gertatzen zena. Goizeko hamaiketean prezintatu zuten eta gu hurbildu ginenerako batzuek oraindik begiak malkotan zituzten..... "inpotentzia".

"Goizeko hamaiketean prezintatu zuten eta gu hurbildu ginenerako batzuek oraindik begiak malkotan zituzten... "inpotentzia"

■ Nola erantzun zenioten egoerari. Zer egin zenuten?

EGUZKI- Berehala hasi zen erlojuaren kontrako lasterketa. Orduan erabaki zen egunkari bat atera behar zela... ezerezetik! Txorakeria dirudi, baina agenda bera ere, nahiz eta ezer ez dela iruditutako, barruan daukazu. Telefonoak? ez genuen inoren telefo-



norik. Berehala hasi ginen nabaritzen jendearen laguntzeko gogoia; batek pisua utziko zigula, besteak ordenadorea... ikaragarria izan zen. Horri esker jo genuen aurrera.

Lanak banatzen hasi ginen gure artean, komunikazio eta propaganda gabinetek sortu ziren, egunero asanbladak egiten genituen Eginen kanpoan eta beraiek (polizia) barruan zeuden.

Nik jendeak eskainitako laguntza azpimarratuko nuke, horrek eman baitzigun aurrera egiteko indarra. Hurrengo egunean "Euskadi información" kalean ikustea ere bultzada handia izan zen guretzat.

"Guk Itxi zenetik astebetera jaso genuen autoa. Gertatuko zenaren berri komunikabideen bidez izan genuen"

■ Nola bisitu duzue prezintu judiziala hautsiz, polizia Eginen barruan ikustea?

KOLDO- zure mundura desiratu gabeko elementu arrotz bat sartu balitz bezala. Nazka. Zikintasuna. Zure mundura deitu ez duten izaki infiltratu bat sartu izan balitz bezala.

Profanazio sentazioa da.

EGUZKI-Dakizuen bezala ez zioten inori sartzen uzten eta gu oraindik ez gara sartu Eginoko egoitzara. Poliziak, berriz, bertan jarraitzen du oraindik. Anekdota bezala, gauza pila prezintatu zuten baina kafe makina ez, horretan aritzen den enpresari deitu baitzioten kafe gehiago eramateko.

■ Zer utzi duzue barruan?

E- Urteak, esperientziak eta zure bizitzako zati bat.

K- Egunerokoa, bat-batean deuseztuta gelditu dena. Nahitanahiez zure bizitza han egiten duzu, goizetik edo arratsalde ordu luzetan lan eginez.

E- Hala ere, orain atek irekiko balizkidate, ezingo nuke lan egin. Ez behintzat lehen bezala. Niretzako ez litzateke toki berdina izango. Txorakeria dirudi baino hala da.

K- Zure lanpostua baino askoz gehiago da.

■ "Egin hil egin dela" entzutean zer sentitzen duzue?

E- Sastateko bat.

K- Niri logikoa iruditzen zait hori esatea baina amorrua ere sentitzen dut. Gauza bat da hilik dagoela jakitea eta bestea hori barneratzea. Denbora behar da hori barneratzeko.

E- Hala ere eman dezagun hemendik hilabetera zabaltzen dutela berriz. Jada "faena" egina dago. Nola altzako

Galdona
burdindegia

Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 -143346
Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA
TABERNA
Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

gofi
haur jantziak

Amaiako plaza z/g Tel. 860959

Gure txokoa
• taberna •
kaxuelita eta pintxo ezberdinak
San Pedro kalea

English School
Harvest

San Jose, 11 bis Tel. 143334

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

Iorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

duzu berriro Egin? Egin izan dena behintzat, ez dut uste kalera aterako litzatekeenik. Mina egina dago. Palua emanda dago.

*“Atzerriko komuni-
kabideek elkartasun
zabalagoa eskaini
digute”*

Beste gaia filtrazioena da. Behin eta berriz salatu duzue autoen filtrazioa.

E- Guk itxi zenetik astebetera jaso genuen autoa. Gertatuko zenaren berri komunikabideen bidez izan genuen. Bata edo bestea atxilotu behar zutela ziotenean alerta pizten zen gure artean. Guk ez genekien ezer, dena zalantza zen, ez genuen autorik jaso eta ez genekien zer zen egia eta zer ez. Komunikabideen bonbardeoa izugarria izan zen.

Koldo, Barricada-koekin elkarrizketan.



K- Nazkagarria izan da. “Fort Apatxe” erasoaren antzekoa izan da. Alde guztietatik eta medio guztiekin

Eta elkartasuna beste medio eta kazetarien aldetik?

E eta *K-* Kazetarien elkartasun adierazpenak jaso ditugu, baina medioen aldetik oso gutxi. Alde horretatik atzerriko komunikabideek elkartasun zabalagoa eskaini digute. Orokorrean elkartasun adierazpenak ugariak izan dira.

Zein hutsune utzi ditu Eginen zuen bizitzan?

E eta *K-* Hasteko, eguneroko bizitza antolatu beharra. Epe motzera egindako planak ere okertu egin dira erabat. Egun batetik bestera bizitza berriro antolatzea.

Eta ikuspegi zabalago batetik, zein hutsune utzi du Eginen proiektuak?

E eta *K-* Inon azaltzerik ez duen pentsatzeko eta sentitzeko modu bat. Ideia bat konpartitzeko aukera ere

galdu da eta ziurrenik, guk baino gehiago irakurle eta entzuleek somatuko zuten.

“Inon azaltzerik ez duen pentsatzeko eta sentitzeko modu bat galdu da eta kolektibo ugari ahotsik gabe gelditu da”

Eta Egin Irratiak?

K- Batez ere herri honetan hain garrantzitsua den bat-batekotasuna galdu da. Eta esango nuke ere, kolektibo ugari ahotsik gabe gelditu dela. Bestalde, irratia bizi eta sentitzeko modu ezberdin bat desagertu da.

Autoa irakurri eta gero, zein iritzi duzue Egin eta auzi honetan atxilotu-takoen aurka egindako salaketek?

E- Ez dugu ezer sinesten. Hasieratik, gai horietan jakitun direnak oinarririk gabeko salaketak direla eta inongo frogarik ez dagoela esan dute. Nik neuk Salutregi ETArekin modem baten bidez komunikatzen zela esan zutenean ia-ia barrez hasi nintzen, bera ezagutzen dudalako eta badakidalako ez dela oso trebea horrelako gaietan. Sekulan modem bat erabiliko zuenik ere zalantzan jartzen dut. Hortik hasita ez dut ezer sinesten.

Zer egiteko asmoa duzue orain?

E- Zain gaude. Badakigu “Euskadi Información” pasabide bat baino ez dela.

K- “Buscarnos la vida”. Ideiarik ere ez. “Onda Cero”ra, adibidez?

Eta proiektu berria dela eta?

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

• denontzat irekia

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

IHINTZA
taberna

181 800472
Ortega y Gasset, 3

E- Gu hortik erabat aparte gaude. Proiektua beste bide batetik doa, EGINEKIN ez dauka zerikusirik. Hala ere, jendea beharko dute lanerako eta esperientziaduna, beraz ez dugu aterik isten, baina printzipioz proiektu berriak ez dauka zerikusirik gurekin.

◀ ANE Osa

Aurtengo
EGIN
egunean,
jende
ugari
bildu zen.



Egingo dugu” proiektu berria

Eginek utzitako hutsunea betetzera dator “Egingo dugu” proiektu berria. Aurkezpen lanetan dihardute egunotan proiektuaren bultzatzaileek. Zumaian hil honen 13an emango da jakitera eta aurkezpena Oxforden egingo da. Prentsa, irrati eta telebista dira proiektu horren erronkak nahiz eta une honetan egunkari berri bat ateratzea den helburu nagusia. Abendu amaiera edo urtarril hasieran egunkari berria kaleratu ahal izateko, mila milioi lortu nahi da. Diru hori bideratzeko tresna juridikoak, “EKHE” elkarte sustatzailea eta “Baietz Fundazioa” dira. 100.000 pezetako akzio eskaerak onartzea izango da EKHE elkartearen lana eta herri mailan akzio horiek bideratzea eta bestelako ekintzak antolatzea “Baietz Fundazioaren” eginbeharra. Herri bakoitzean diru kopuru bat lortu nahi da, kasuan kasuko egoera aztertu eta lor daitekeena baloratu ondoren. Zumaian 7 milioi lortzea da helburu, eta akzioen jabe egiteko formula ezberdinak onartuko dira. Horri buruz informatzea eta laguntza bideratzea izango da herrietan ordezkari izango duen “Baietz Fundazioa”ren lana. “Hitz Egin” plataformaren desagerpenak ekarri du Fundazioaren sorrera eta helburuek lehengo berak izaten jarraitzen dute, hau da: adierazpen askatasunaren defentsa, euskal komunikabideen sorrera bultzatzea eta baztertua dagoen hauetariko edozein babestea.

Ez dute zehaztu oraindik egunkari berriaren izena, baina ezaugarri batzuk finkatuta daude. Alde batetik egunkari nazionala izatea, bestetik euskarak izan behar duen presentzia aztertzea eta azkenik, Eginek zuen izaera bera mantentzea, hau da, gizartearen baztertuak dauden kolektiboen ahotsa izatea: intsumisoak, gazteak, emakumeak, langileak eta abar. enioen moduan ekintza ezberdinak antolatuko dira herrietan eta Zumaia ez da salbuespena izango, horregatik bere laguntza eskaini nahi duen oro ongi-etorria izango dela azaldu dute Zumaiaiko “Baietz Fundazio”ko kideek.

Informazio gehiago nahi izanez gero, beraien bitartez lor dezakezue eta “Egingo dugu” proiektua luze eta zabalago zer den jakiteko berriz, hilaren 13an Oxfordera hurbiltzea besterik ez duzue.



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitza, fabiliciei eta herriko argietan


Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409



Alai auzategia, 2

Tel. 943 14 33 24



MUNDU MEDIATIKOA
 KULTURA ETA TALDE
 BERRIEN
 PERTSONALITATE
 ARAZOA

ONDIA HAV EZTALA
 PETSIN ANUNTZIYUA!
 JODE! LA ONDIA !!
 SNIF

- IXILDUAI ORDUAN...!
 - UNDRROOP, UNDRROOP!
 - USTELA !!
 - ZAKILA!



- BUUUUU!
 - BA, JUNAI ITXEA ORDUAN!
 - TIMO!
 - HI KANTA, GARINA DEK!
 - DIRUA BUELTA ZAK!
 - ZARAMA!
 - BURUKO LETXWANTZAT HARTZAK
 TOMATIA, XALAO!
 - NAI PIKUTA!
 - JAKIN BANU, BEELA GASTATUKO
 NITUZKE ZORRAK!

Jon Ulazia eta Juan Manuel Lopez zumaiar onenak Zakila biran

Pablo Gomez eta Isabel Dumall-ek irabazi dituzte gizonezkoen eta emakumezkoen lasterketak



Urriko lehenengo asteburuan korritu zen II. Zakila Bira lasterketa herrikoia. 20 kilometroko proba hau Behobia-Donostia karrera famaturako test garrantzitsua izan ohi da eta korrikalari asko dira beren burua frogatzera Zumaiako lasterketa honetara etortzen direnak.

Aurtengo honetan lehenengo edizioan baino lasterkari gehiago izan dira irteera puntuan, 300 baino gehiago. Gizonezkoetan, 284 lagunek amaitu zuten proba, emakumezkoak 20 ziren eta hauez gain, bi elbarrituk ere osatu zuten ibilbide osoa. Urte honetan

gainera, bai emakumezkoen eta bai gizonezkoen mailan, iaz baino denbora hobeak markatu dituzte irabazleek.

Gizonezkoetan, garaipena Durangoko Pablo Gomezentzat izan zen, Xabin Aranaga azpeitiarraren eta Miranda de Ebroko Iñaki Mendozaren aurretik. Emakumezkoetan berriz, Isabel Dumall-ek irabazi zuen, bigarren Amaia Insausti suertatu zen eta hirugarren berriz, Sonia Aragon.

Zumaiarrei dagokienez, aurtan Mariano Sanchez de la Flor-ek ez du parte hartu lasterketa honetan. Azken

urteetan bera izan ohi da zumaiar onena hango eta hemengo karrera ezberdinetan, baina oraingo honetan Jon Ulazia eta Juan Manuel Lopezek ordezkatu diote sailkapen berezi horretan. Nesketan berriz, Arritxu Urbieta izan da zumaiar hoberena.

Hona hemen, lasterketako lehen hamar korrikalarien sailkapena, eta zumaiarrek egindako lana gizonezkoen eta emakumezkoen mailan:

Gizonezkoak

| POSTUA | DENBORA |
|-----------------------|-----------|
| 1- Pablo Gomez | 1 h 04:55 |
| 2- Xabin Aranaga | 1h 05:45 |
| 3- Iñaki Mendoza | 1h 07:15 |
| 4- Oskar Asin | 1h 07:47 |
| 5- Javier Colomo | 1h 07:48 |
| 6- Iñaki Zubizarreta | 1h 07:57 |
| 7- Basilio Aramburu | 1h 08:30 |
| 8- Asier Urdampilleta | 1h 08:32 |
| 9- Igor Larramendi | 1h 08:37 |
| 10- Patxi Sanchez | 1h 08:44 |



**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea Tel. 861523

**ILEAPAINDEGIA
TRUITZ**

San Telmo, 12
Tel. 860760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

Zumaiarrak

| | |
|-----------------------------|----------|
| 28- Juan Manuel Lopez | 1h 13:59 |
| 29- Jon Ulazia | 1h 14:00 |
| 37- Jaime Osa | 1h 14:59 |
| 67- Jon Sasiain | 1h 19:03 |
| 74- Felipe Agirre | 1h 19:15 |
| 82- Grazian Galarraga | 1h 19:41 |
| 83- Jesus Garcia | 1h 19:43 |
| 85- Juan Ignacio Alkorta | 1h 19:44 |
| 92- Xabier Irueta | 1h 19:55 |
| 103- Martxelo santamaria | 1h 20:35 |
| 104- Peio Santamaria | 1h 20:35 |
| 126- Jose Mari Lopetegi | 1h 22:47 |
| 127- Ramon Egiguren | 1h 22:48 |
| 161- Ramon Otaño | 1h 25:17 |
| 162- Jesus Mari Aguinagalde | 1h 26:19 |
| 163- Roberto Martin | 1h 26:20 |
| 188- Jose Maria Hidalgo | 1h 29:04 |
| 217- Iñaki Aizpurua | 1h 31:53 |
| 220- Luis Osa | 1h 32:20 |
| 221- Mikel Sarasua | 1h 32:21 |
| 225- Felix Aizpurua | 1h 33:34 |
| 234- Ricardo Martin | 1h 35:47 |
| 259- Abundio Garcia | 1h 39:32 |
| 260- Jose Miguel Aramendi | 1h 39:37 |
| 267- Ramon Rivas | 1h 42:53 |
| 269- Karlos Balenziaga | 1h 45:55 |
| 282- J.Jose Unanue | 1h 59:06 |

Emakumezkoak

| POSTUA | DENBORA |
|-------------------------|----------|
| 1- Isabel Dumall | 1h 18:06 |
| 2- Amaia Insausti | 1h 19:26 |
| 3- Sonia Aragon | 1h 22:58 |
| 4- Maria Jesus Silvano | 1h 23:08 |
| 5- Josune Tercero | 1h 28:44 |
| 6- Ana Carcamo | 1h 29:58 |
| 7- Maria Pilar Arriola | 1h 31:47 |
| 8- Nati Mancho | 1h 32:06 |
| 9- Naroa Arrieta | 1h 32:48 |
| 10- Mari Carmen Iriarte | 1h 34:33 |

Zumaiarrak

| | |
|----------------------|----------|
| 13- Arritxu Urbietta | 1h 43:38 |
| 17- Johanna Garcia | 1h 56:06 |



ITSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH
Ingelesko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak
Basadi, 2 Tel. 862373

ITZURUN
KIROLAK
Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

ileapaindegia
I Z E T A
Urumea, 6 Tel. 862083

Partehartzaile asko izan dira aurtengo edizioan.



Triatloian Jesus de la Fuente barakaldoarra izan zen garaile

Iñaki Aizpuruak lortu zuen lehen postua zumaiarren artean

Irailaren 19an jokatu zen IV. Zumaia-Zestoa-Zumaia triatloia. Guztira ia 200 partehartzaile izan ziren irteera puntuan triatloiko hiru probak osatzeko asmoz eta hauen artean, nola ez, zumaiar multzo zabal bat. Lehenengo frogan, kilometro t'erdiko igeriketa saioa zen: Arbustaingo arrantatik irten barra berriaren parean buelta eman eta berriro arrantpara itzuli.

Igeriketa amaitu eta bizikletako probari ekin zioten triatloilariek. Guztira, 20 kilometroko ibilbidea osatu behar zuten eta hau gutxi balitz, korrika 10 kilometro egitea geratzen zitzaizkien partaideei Azkoitiako kaleetan barna.

Triatloi honetako gizonik azkarrena Barakaldoko Jesus de la Fuente gertatu zen 1h:50:51ko denborarekin; bere atzetik, Judizmendi Triatloi

taldeko Ciro Tobar de Urbina sailkatu zen eta hirugarren berriz, Pau Triatloieko Johan Martinez. Emakumezkoetan berriz, onena Aintzane Argaitz izan zen 2h:14:45eko denborarekin; bigarren Paki Markez eta hirugarren Silbia Muñoz sartu ziren helmugara.

Iñaki Aizpuruak triatloi gogor batean parte hartuko du Iparraldean

Zumaiarren artean triatloilaririk onena Iñaki Aizpuruak izan zen. 40. postuan sartu zen helmugara eta berak egindako denbora, 2h:11:39. Bigarren herritarra, Ramon Egiguren suertatu zen eta hirugarren Xabier Alzibar.

Iñaki Aizpuruak gainera, urriaren 11n Iparraldeko triatloi gogor batean parte

hartuko du. Guztira, 3,8 kilometro igeri, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika burutu beharko dituzte proba honetan arituko diren atletek. Ingelesez "Ironman" izenez bezala ezagutzen da proba hau, burdinazko gizonentzako proba hain zuzen ere.

Urte honetako Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloia alabaina, kirol berriengatik baino, gertatutako ezbeharrarengatik gehiago gogoratuko da, igeriketa proban zumaiar gazte bat hil egin baitzen. Honez gain, eta ondorio hain larriak izan ez bazituen ere, triatloia hastera zihoala adierazten zuen katxaperoetako bat bere norabide normaletik okertu eta portuan lotuta zegoen lantxa erako untzi batean eztanda egin zuen. Leherketaren eraginez, untzia hondora joan zen.

Joseba Ossa

ITZULPENAK

euskara . gaztelera . katalana
ingeleza . frantsesa

Tel./Faxa: 148306

E-mail: bakun@encomix.es

*Jesuskoa
Jaletxea*



Tel. 861739

OIKIA
ZUMAIA



**Loredenda
JEMAR**

**LANDAREAK . LOREAK
HAZIAK . ZERAMIKAK**

Erribera, 1

Tel. 860375

Hona hemen IV. Zumaia-Zestoa-Azkoitia triatloiko sailkapenak:

Gizonezkoak

| POSTUA | DENBORA |
|-----------------------|----------|
| 1- Jesus De La Fuente | 1h:50:51 |
| 2- Ciro Tobar | 1h:55:38 |
| 3- Johan Martinez | 1h:56:40 |
| 4- Asier Bilbao | 1h:58:41 |
| 5- Antonio Martinez | 1h:59:29 |
| 6- Alberto Cebollada | 2h:00:07 |
| 7- Sergio Palacios | 2h:01:10 |
| 8- Etor Mendia | 2h:01:42 |
| 9- Iñigo Fernandez | 2h:01:46 |
| 10-Luis Miguel Garijo | 2h:01:55 |



Jesus de la Fuente, irabazlea, uretatik ateratzen.

Zumaiarrak

| | |
|----------------------|----------|
| 40- Iñaki Aizpurua | 2h:11:39 |
| 58- Ramon Egiguren | 2h:16:38 |
| 66- Xabier Alzibar | 2h:18:24 |
| 113- Jon Ulazia | 2h:27:16 |
| 147- Juan Kruz Zubia | 2h:37:08 |
| 166- Oskar Castro | 2h:46:01 |

Emakumezkoak

| | |
|----------------------|----------|
| 1- Aintzane Argaitz | 2h:14:45 |
| 2- Paki Markez | 2h:18:09 |
| 3- Silbia Muñoz | 2h:20:37 |
| 4- Ana Casares | 2h:21:47 |
| 5- Yolanda Magallon | 2h:26:32 |
| 6- Maria Cruz Aragon | 2h:26:36 |
| 7- Marianne Sutra | 2h:33:03 |
| 8- Amelia Torrego | 2h:34:39 |
| 9- Amaia Eizagirre | 2h:36:25 |
| 10- Alazne Anton | 2h:36:49 |



Iñaki Aizpurua, lehenengo zumaiarra.



HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatu

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 861853




eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



Tel. 143379



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitak eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 862517

Uste baino denboraldi kaxkarragoa burutu du Telmo Deun-ek

Amaitu berria da aurtengo traineru denboraldia eta Zumaiaiko untxiaren balorazio bat egiterako orduan Luis Mari Goikoetxea Aita Mari Arraun Taldeko presidentearengana jo dugu. Berak aitortu duen bezala, zerbait hobeto ibiltzea espero zuten "baina arraunlarien lan kontuek zailtasun handiak jarri dizkigute emaitza hobeak lortzeko orduan. Laneko txandak eta

bidaiak zirela eta, ezin izan degu danak batera entrenamendu asko egin eta hau gero konpetizioan igarri da".

Denboraldia nahiko pattal hasi zuten Telmo Deuneko arraunlariak eta honekin batera, aurtengo helburu nagusia ez zuten eskuratzerik izan, Euskal Ligan sartzea hain zuzen ere. "Dezepzio handia hartu genuen liga horretan sartu ez ginelako. Horixe zen gure denboraldiko helburu nagusia, baina azkenean ez zen posible izan".

Dena den, iaz Errioxan gertatutakoaren antzera, aurten ere bandera bat irabaztea lortu dute zumaiarrek, Lekeitiokoa alegia. Abuztuan zehar gainera, talde guztia batera egon den unean, untxiak estropada onak egin ditu. Aipatutako Lekeitioko garaipena, Santoñan, Kastron, baita Zumaian ere, etxeko untxiak lan polita egin izan du.

Datorren urteari begira, blokea mantentzeko esperantza du Luis Mari Goikoetxeak. "Honetaz gain, pare bat jubenilek gora egingo dute salto eta arrauna utzita zeuden batzuk ere berriro taldera bueltatzeko itxaropena dugu". Guzti honengatik, hurrengo urteko denboraldia aurtengoa baino askoz hobe izango dela uste du presidenteak.

Bestalde, nahiz eta traineru denboraldia amaitu, arraunak ez du atsedetik hartuko. Hilabete honetan bertan hasiko dira lanean infantil, kadete eta jubenil mailako neska-mutilak. ◀



Hamalau taldek hartuko dute parte aurtengo plaierotan

Urriaren 11n jarriko da martxan 1998-1999 denboraldiko plaierotako txapelketa. Orain hasi eta apirila bitartean luzatuko da, eta azken partiduak beti bezala San Telmotako jaietan jokatu dira. Guztira, hamalau talde arituko dira txapelketa honetan eta hiru multzotan banatu dira: hauetako bi bost taldekoak dira eta hirugarrena laukoa. Hasierako ligaxka jokatu, multzo bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira Liga faserako eta gainontzekoak Kopara joango dira.

Iaz Hiru Ezkur izan zen talde indartsuena eta beren sendotasuna agerian utzi zuten partiduro denboraldi guztian zehar. Hasiera-hasieratik argi utzi zuen bera zela faborito nagusia; ikusiko dugu aurten berdin gertatzen den edo beste talderen batek hartzen dion txanda.

Denboraldi honetan berritasun nagusia da partidu guztiak printzipioz behintzat igandetan bakarrik jokatu direla. Larunbateko jardunaldiak kendu egin dira, baina

neurketa batzuk igandea ez den beste jaiegun batzutan ere jokatu dira.

Plaierotako txapelketa honetako lehenengo jardunaldia urriaren 11ean, igandean, jokatu da eguerdiko ordu batean. Lehenengo zelaian, Artetxe Altzariak taldeak Ederki Herri Biltokiari egingo dio aurre eta bigarrenengan, Siete Maresek Txikixa Pub-en aurka neurtuko ditu bere indarrak. Zelaian markatzea, Ederki Herri Biltokia taldeari egokitzen zaio estreinaldi honetan.

◀ IGOR URANGA

KUKUTZ
serigrafia

· kamisetak
· txiskeroak
· paperezko poltsak
Tel. 860569
Baltasar Etxabe, 7

AIZPURUA

LIBRERIA
opariak

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 861569

LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6
Tel. 860415

Saskibaloia, berriro harrobiari begira

Zumaiako Saskibalo Taldeak bi talde izango ditu aurten

Jakina da saskibaloia ez duela inoiz erro sendorik izan gure herrian. Jakina da, futbolarak, eskubaloia edo piraguismoak askoz ere tradizio handiagoa dutela, eta jendearen atenzioa erakartzeko indar handiagoa dutela. Baina isil-isilik, eta helburu handirik jarri gabe Zumaiako Saskibalo Taldeak zortzi urte bete ditu, eta ez dute etsitzeko asmorik. Horren adierazgarri, aurten harrobiko talde bat sortzeko egin duten ahalegina. Ohiko talde nagusiaz gain, 98-99 denboraldian kadete mailako taldea izango da lehian Gipuzkoako kantxetan. 83-84 urteetan jaiotako gazteek osatzen dute, eta oraindik badago lekuren bat norbaitek interesa badu. Taldearen ardura Jon Argoitia jokalaria ohiak hartuko du. Norbaitek pentsa dezake apur bat berandu dela harrobia lantzen hasteko. Gogoratu

behar da 93-94 denboraldian Zumaiako Saskibaloia bi talde izan zituela, nagusia eta gazteena. Gero, gazteen taldeak ez zuen jarraipenik izan, baina bertatik gaur egun talde nagusia osatzen duten zenbait jokalarik atera ziren.

Talde nagusiari dagokionez, badaude zenbait aldaketa. Inaki Arrietak jarraituko du jokalarientrenatzaile lanak egiten, baina taldeko bi jokalarik garrantzitsuk agur esan dute, Jon Argoitiak eta Ibon Zubizarretak. Hala ere, taldeak iazko lana ontzeko ahalegina egin behar du. 2. mailako talde beteranonetakoa da, eta horrek asko balio du. Zaila izango da berriro igoera lortzea, baina erronka hortxe dago.

Bi talde, aurrekontu bikoitza

Bi talde lehian izatea gauza ederra da, baina diru aldetik ahalegin bikoitza eskatzen du. Orain arteko ibilbidean Zumaiako Saskibalo Taldeak babesleak izan ditu zenbait denboralditan, baina beste batzutan ez. Gogoratu behar dira, eta bide batez, eskerrak eman, Itzurun Kirolak denda-lehen babeslea eta Lagun Artea enpresa. Babeslerik gabe aritzeak esan nahi du aurrekontua osatzeko jokalariek euren poltsikotik jarri behar dutela. Udalak dirulaguntza jakin bat



ematen du, baina horrekin ez da nahikoa. Horregatik, babesle berri bat bilatzeaz gain, klubarentzat laguntza handia izan den beste iturri batera jo du aurten ere: borondatezko bazkideak. 1000 pezetaren truke, borondatezko bazkide egin zaitezke, saskibaloia laguntzea helburu soilarekin -hori bai, partidu guztiak ikusteko aukera ere badago!-. Urtero herriak bikain erantzun du, eta aurten ere berdin izatea espero dute klubeko arduradunek.

Kontuak kontu, Zumaiako Saskibalo Taldeak dei bat egin nahi die Zumaiako zale guztiei partiduak ikustera joan daitezten, eta norbaitek bereziki lagundu nahi badu, jakin dezala klub honek ateak zabalik dituela.

◀ GORKA ZABALETA

Rosi garbiketak

- * Etxeak eta dendak
- * Enpresa eta auzo lanak
- * Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 861670

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4

Tel./Faxa: 143422



Tel. 143278

zakila biran dopatuko al zinateke?



Felix Aizpurua

Prueba herrikoia da
ta ez du
merezi.



**Mila Fernandez eta
Itxaso Fernandez**

Ez.
Bizitzan zerbait
lortu nahi bada,
meritu propioz
lortu behar da.



Rikardo Martin

Neretzat doping egitea
nere burua
engainatzea da. Gainera
Zakila biran Behobian baino
gehiago disfrutatzen da,
ez daolako
horrenbeste jende korrika.



Narrondoko kuadrila

Doping eman,
emango genuke,
baina egin,
ez dakigu!



Jon Ulazia

(Zumaiako aurrena
Tximasekin batera)

Ez,
guk ez deu kobratzen,
ez daukau
nibel hori.



Johanna Garcia

Ez,
ze ni ez naiz joan
ezer irabaztera,
disfrutatzeraz baizik.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

ILE APAINDEGIA



Etexzarreta, 19 Tel. 862342



GILANO

Paperdenda LIBURUDENDA
Aldizkariak
Fotokopiak Baltasar Etxabe, 7
Enkuadernazioak Tel. 143191

Zabortegien puzkerra, energia iturri ederra

Zabortegien sabelean sortzen diren gasek leherketa bat eragin dezakete, eta horregatik tutuen bitartez azalera ekartzen dira.

Horrek beste arazo bat sortzen du, usain txarra. Beraz, pentsa daiteke gas hauek kaltea baino ez dakartela. Baina ez da horrela. Gas hori energia iturri baliagarria da, eta Gipuzkoan bertan bada erabilera hori eman dion Zabortegei bat: San

Markos Mankomunitatekoa.

Zabortegei-gasa, edo biogasa berez sortzen da, zaborretan diren hondakin organikoen ustelketa prozesuan zehar. Metano kopuru handia du –energi gaitasun handiko hidrokarburoa–, eta horrek biogasa energia termiko edo elektriko gisa erabiltzeko aukera ematen du.

San Markos Mankomunitateak 10 udalerrri hartzen ditu bere baitan: Usurbil, Donostia, Lasarte, Urnieta, Hernani, Astigarraga, Errenteria, Oiartzun, Lezo eta Pasaia. Guztira 300 mila biztanle ditu, hau da, ia Gipuzkoaren erdia. Bertako arduradunek, biogasak eskaintzen duen aukeraz oharturik, BIOSANMARKOS erakundea sortu zuten 1993an, azterketa bat egin eta sistema berri hau martxan jartzeko. San Markosko zabortegei kontrolatua 37.111 tona materia organiko jasotzen dira urtero. Horrek zenbat biogas sortuko du? ia 1,5 milioi m³ urtean, eta kopuru honetatik erdia izango da erabilgarria. 1994an jarri zuten martxan biogasa energia bihurtzeko ustiategia. Lehen fase batean 300 milioi pezetako inber-

tsioa egin behar izan zuten, eta bigarrenean 95ekoa. Ustiategiak sortzen dituen irabaziekin, lau urtetan –beraz aurtentzen– hasieran egin beharreko inbertsioa estalita gelditzea aurreikusitua zuten.

Baina zenbat energia sortzen du ustiategi horrek? Zenbaterainoko errentagarritasuna du? Egia da edozein zabortegeitan ezin dela horrelako sistema bat ezarri. Neurri jakin bat izan behar du, materia organikoa bakarrik egotea eskatzen du eta toki bakoitzean sortzen den biogasaren kalitatea aztertu behar da. San Markosetik sortzen duen biogasak 4000 etxetara eramaten du argindarra urte guztirako. Esan beharra dago legeak Energiaren Euskal Erakundea behartzen duela ustiategi honek sortzen duen energia guztia erostera.

Agian biogasaren ustiapena ez da izango energia arazoak konpontzeko giltzarria, baina gutxien pentsatzen dugun tokian energia iturri bat dagoela erakusten digu San Markosko esperientziak. Beraz, Donostiako taberna batean sartzen zaretenean,



gogoan izan ezazue bertako argia, musika eta bestelako aparailu guztiek San Markosko puzker energetikoari esker funtzionatzen ari direla! –neurri txiki batean, ez pentsa–.

◀ GORKA ZABALETA

Nikol  Enea
TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

LONGE

JOXE
MANUEL

Kupoi batzuk
erosi eta ...

ZORTE ON !!

Tel. 862347 - 861001

ZINE FORUM

Urriaren 8an eman zitzaion hasiera 98-99 denboraldiko zine forum emanaldiei, gure artean familiartekoa bihurtzen ari den **John Sayles** (*El secreto de la isla de las focas, Lone Star*) zuzendariaren azken filmearekin, hain zuzen aurreko urtean Donostiako Zinemaldian estreinatutako *Hombres armados* filme bikainarekin.

Ondoren agertzen den kritika urriaren 22an ikusteko aukera izango dugun filmearena da, honako honena alajaina...

Persiguiendo a Amy (Chasing Amy, 1997)

Zuz: Kevin Smith

Akt: Ben Affleck, Joey Lauren Adams, Jason Lee

1994 urtean Kevin Smith-ek sekulako arrakasta izan zuen filme independenteen zirkuituan bere lehen lana zen *Clerks* filmearekin. Pelikula hura ia batere dirurik gabe, zuri beltzean eta aktore ezagunen faltan lagunak erabiliz egin zuen filme bikain eta barregarria zen. Oso ongi deskribatutako pertsonaiek eta asko landutako elkarrizketa zorrotz eta barregarri haiek Hollywood-eko atea ireki zizkion. Orain, *Persiguiendo a Amy*-rekin aldaketa nahiko sakona eman dio bere zineari. Bai, oraindik ere hor daude dialogo bikain horiek, baina baita ere bere aurreko zinean aurkitzen ez genuen seriotasuna, tristura, drama hitz batean.

Persiguiendo a Amy-k hitz gutxitan kontatzen duena maitasun istorio bat da. Komikigile batena eta oraindik eta bere sexualitatearen orientabidea guztiz ezagutzen ez duen neska baten harremana hain zuzen ere. Bi pertsonaia hauen inguruan fauna txiki bat batzen da: komikigilearen laguntzailea (edo kalkatzailea ote?), neskaren lagun homosexualak, eta *Clerks*-etik ikusgai den bikote zorua. Filme honekin berak hala izendatutako *New Jersey-eko trilogia* amaitzeaz gain, izugarritzko aurrerapausoa eman zuen bere zinean, komedia (edo drama ote?) bikain bat izateaz gain, filme baikorra eta ausarta baita. Aita Mari aretora hurreratzeko esfortzua egitea merezi duena, behintzat.

Azaroak 5

Aficción (Afiction, 1998)

Zuz: Paul Schrader

Akt: Nick Nolte, James Coburn

Irakurketarako aukerak

Euskaraz

Bizkarrean tatuaturiko mapak

Argizanaren egunak

Nik ere Germinall!

ein gura nuen aldarri

Naufrago baten kontakizuna Gabriel Garcia Marquez

Harkaitz Cano

Anjel Lertxundi

Koldo Izagirre



Gaztelerez

Los regocijos de la carne

Patente de corso (1993-1998)

Tierras de cristal

Tres piezas radiofónicas

Artemio Zarco

Arturo Perez Reverte

Alessandro Baricco

Torgny Lindgren



Haurrak/Gaztetxoak

Ostadarren zazpi ateak

Itsasoko izarra

Aingeru guardakoa, ez izan

ganorabakoa

Irribarrez hil

Karlos Santisteban

Maria Jesus Leza

Seve Calleja

R. L. Stine



OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6

Tel./Faxa: 943-143057

Z U M A I A

ETOR ZAITEZTE GURE DENDA BERRIA EZAGUTZERA!



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12

Tel. 861412

urria

ANTZERKIA

Itzurungo Uhinak taldearen "Beti gelditzen zaigu Paris"

- ▶ Urriaren 9an, ostirala, gaueko 10etan
Aita Mari zinemari

KONTZERTUA

"Kleamer Ensemble" musika judutarra

- ▶ Urriak 11, igandea, arratsaldeko 8etan

III. TXISTU ALARDEA

- ▶ Urriak 24, larunbata, arratsaldeko 7:30etan
Beheko plazan

IRTEERA

Guggenheim-en dagoen "CHINA" erakusketa ikustera.

Prezioa: 700 pta.

- ▶ Urriaren 24ean, larunbata, goizeko 10.00etan

Izen ematea: **Foronda Kultur Etxean**

DIPOSITIBA EMANALDIA

Xabier Aranguren-en eskutik: "Etxetik hain urruti eta zerutik hain hurbil"

- ▶ Urriak 9, ostirala. Arratsaldeko 7etan
Forondan

DIPOSITIBA EMANALDIA

Javier Juanes-en "Gipuzkoako Festak: Udazkena"

- ▶ Urriak 30, ostirala. Arratsaldeko 7:30etan
Forondan

ERAKUSKETAK

Arantza Jauregi-ren akuarela bilduma.

- ▶ Irailaren 17tik Urriaren 10era
Forondan

ASTEBURU MIKOLOGIKOA

- ▶ Urriaren 22tik 25era

ZINE FORUM

"Persiguiendo a Amy"

- ▶ Urriak 22, osteguna, gaueko 10:15etan
Aita Mari zinean

IKASTAROAK

Pintura tailerra: ikasturte osorako matrikula 1000 pta. eta hilero kopuru bat ordaindu beharko da.

- ▶ Urriaren 5ean hasiko da.

Astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 6:30etatik 8etara.

Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 3retatik 4:30etara

Izen ematea: **Forondan**

Akuarela ikastaroa: Irakaslea Arantza Jauregi. Matrikula 5000 pta. eta materiala bakoitzaren kontu.

- ▶ Urriaren 20tik abenduaren amaierarte.

Astearte eta ostegunetan, arratsaldeko 6etan

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

LIBURUTEGIA

Helduentzat

- ▶ Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.

Larunbatean, 10.00 - 13.00

Haurrentzat

- ▶ Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

- ▶ Egutegia, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

Liburutegian.

- ▶ Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30

INMOBILIARIA



BIDAIAK

Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

TALAI-MENDI
DEKORAZIOA

- * Eskaiola
- * Pintura
- * Pladur
- * Erreformak oro har

ERAKUSKETA: Juan Belmonte, 35
Tel. 929-550574

BELARDENDA
SIWA



Izaga Garcia
DIETISTA

Esther Blanco

OSTEOPATA - MASAJISTA

Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012



Oviedon

Plazerra eta lana nahasteak kalte egiten duela diotenari oker dabilela adierazteko hona hemen adibide garbi bat. Zumaia eta Arroako bost gazte Sebastopoleko Titiriteroekin elkartu eta Oviedoko San Mateo jaietan izan dira hamar egunez. Bertan, argazkian ikus daitekeenez, pailazoz mozorrotu, bakoitzak instrumentu bat lagun hartu eta hor ibili dira Oviedoko kaleak musikaz "blaitu" eta haur txiki eta ez hain txikiengan irribarrea sortzen. Lanaldi edo/eta oporraldi nahasketa bikaina dudarik gabe. Eta ez pentsa horretarako musika karrera egin behar denik, gogo eta ausardia pixka batekin "izugarriak" egin daitezke. Horra hor enbidoa!!!!



**Kafe hauek denak...
FREXXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira**

Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.











motxian hi!



zein: Ibon Aizpurua
zer: Ikaslea
nola: Alkate/Epi

Kurtso berriari aurre egiteko prest al zaude?
Bai, goguakin gainera

Zer egiten du informatiko batek Oikian?
Beste danak bezela, bizi

Zer moduz hasten da belarra Oikian?
Oso ondo

Oikiako frontoian noiz pintatu behar duzue Oikiako eskudua?
Ez dakit

Nola ikusten dezu Itziarko segregazioa?
Ondo

Euskal Herrian parrandak eta Oikiara lotara bakarrik?
Zierto

Zer moduz konektatzen da Oikia internetekin?
Zumaiatik baino hobeto

Zein da gustokoen duzun pelikula? eta liburua?
"Trainspotting". "Kutsidazu bidea Ixabel"

Udazkenean hostoak erortzen dira, zer ereriko da zure udazkenean?
Udaran irabazitako dirua... eta neguan ere bai

Zer egingo zenuke loteria irabaziz gero?
Kotxe eder bat erosi eta neguan elurreta joan

Zure bizitzako 3 gauza garrantzitsu.
Askatasuna, norberak nahi duena egiteko, musika eta osasuna

Nolatan zara horrelako beltza oikiarra izanda?
Ez dakit, herentzitik datorrela suposatzen det. Nere amona eta ama beltzak dira baita ere.

agurrak

Imanol.
Ez nekien Hitler-ek seme
Euskal Herriarrak
zuenik.

Atzerritarak

Kanta!, trajebañu
sikodeliko, aletak eta
txanpero zahar horrekin
olatuak aldein.

Kanika.team



Zuen agurrak jasotzeko prest!

ZALLA
Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22 Tel./Faxa: 143143



xirula

- Argazki eta bideo erreportaia
- Errebelatzeak
- Kamarak
- Musika

Erribera kalea z/g Tel. 861705



Maria gora....

...maria behera. Horrela dio abesti ezagun batek. Kasu honetan behera, eta oso behera gainera. Begira "Paca Gomez" izena duen itsasontzi horren etzana bestela. Aproposa iruditu zaigu argazki hau hil honen hasieran urteko marea handienak izanik, baina ez dirudi horrelakorik ikusiko dugunik aurten. Asko jota motoraren bat oker-oker eginda ikusi ahal izan dugu.



TXAPARTEGIk emandako tarta **JOKIN GIJARRO**rentzat izan da. Askok asmatu zenuten bezala, argazkian ageri ziren festak, Oikiako San Bartolomeak ziren.

Lehiaketa goxoa

Adi, adi! Berriz ere tartak ematen hasi gara!!!



Zeinek antolatzen du tabernarien arteko pintxo lehiaketa?

Asmatzen duzuenon artean *Txapartegi* gozotegiak emandako tarta zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna gure Buzoi berrian edota Txapartegin bertan uztea, urriaren 23a baino lehen. Lehenbailehen idatzi eta zorte on!



TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 143089



Artadi auzoa
Tel. 862189

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g
20740 IRAETA - ZESTOA

Tel. 148082
Faxa: 148124
78 postakutxa

BALEIKE

1998ko urria. 50. zenb.

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa Tel. 860000

Erribera, 2 143001

Juan Belmonte, 5 860300

Basadi, 4 143221

P. Etxezarreta, 42 862528




"Muagi"

Medikuntza eta errehabilitazio zentrua

Aita Mari poligonoa, 3. blokea. Tel. 943 86 16 91

Z U M A I A



MEDIKUNTZA OROKORRA

Rosa Azkue doktorea

KIRURGIA OROKORRA

Juan Ignacio Alberdi doktorea

ERREHABILITAZIOA

Maria Etxaniz doktorea

FISIOTERAPIA ETA

INDARBERRITZE FUNTZIONALA Inma Cabanillas anderea

KIROL MASAJEA ETA TERAPEUTIKOA

KIROL ETA ARIKETA

FISIKORAKO MEDIKUNTZA

J.M. Gonzalez Aramendi doktorea

- Kirol gaitasuna neurtzeko azterketak
- Esfortzu frogak
- Kirolerako balorazio eta segimendu medikoa

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatoz eta zaldetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



zatoz ikustera!



PEUGEOT 206 berria



auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT